

IKUSKIZUN BIKOITZA

Arriaga Antzokiak eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak hitzarmena berri du dutela-eta, baterako abonua eskaintzen dute 6 ikuskizunetarako, 50 eurotik hasita

- **Abonuak abenduaren 14an, astehelena, egongo dira salgai Bilbao Orkestra Sinfonikoak Euskalduna Jauregian duen bulegoan eta Arriaga Antzokiko leihatiletan**
- **Abonuak 3 kontzertu, zarzuela-ekoizpen bat, antzezlan bat eta dantza ikuskizunerako sarrerak ditu, %25erainoko deskontuarekin**

Bilbo, 2008ko abenduak 9.- BOSek (Bilbao Orkestra Sinfonikoa) eta Arriaga Antzokiak zuten lankidetzeta-hitzarmena berri du dutela eta Gabonetako ikuskizunetarako baterako abonua eskaintzen dute berriro ere. Bi erakunde hauen arteko hitzarmena kulturaren zaletuentzat benetako oparia da. Arriaga Antzokiak eta BOSek 2007. urtean sinatu zuten lankidetzeta-hitzarmena urtebetez luzatu dute, berriro ere, 2009ko **urtarrilaren 27tik ekainaren 17ra** bitarte 6 ikuskizunetarako (musika, dantza, zarzuela eta antzerkia) merke gozatzeko aukera emanez. Zehazki, abonuan ikuskizun hauetarako sarrerak sartuta daude: **Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 3 kontzertu**, Euskalduna Jauregian, eta 3 ikuskizun Arriaga Antzokian: **“El barberillo de Lavapiés”** zarzuela ekoizpena, **“Nebbia” Cirque Eloize-ko** antzezlan eta **Les Ballets Trockadero de Monte Carlo-ko** dantza ikuskizuna. Abonuko sarrera horiek ez dira izendunak, eta aukera egongo da beraz produktu berezi hau Gabonetan oparitzeko.

Datorren **abenduaren 14an, astehelena, salgai egongo** dira baterako abonua hauek, bi salneurritan: **50 euro eta 120 euro**. Bi abonua horiekin Arriaga Antzokiko 3 ikuskizunetarako eta Euskalduna Jauregiko Auditoriumean egingo diren 3 kontzertutarako sarrerak eskuratuko dira, baina eserleku ezberdinetan. 50 euroko abonuan, eserlekuak Arriaga Antzokiko **anfiteatrokoak edo goialdekoak** dira eta **Euskalduna jauregiko C eremukoak**. 120 euroko abonuan, aldiz, sarrerak **Arriaga Antzokiko besaulkietarako** dira eta **Euskalduna Jauregiko A eremuko eserlekuetarako**. Abonuen prezio hauek 6 ikuskizun horietarako sarrerak banaka erosiz gero baino %25 merkeagoak dira.

Zehazki, hauek dira eskaintzan sartuta dauden **SEI IKUSKIZUNAK**:

1. **ZARZUELA “EL BARBERILLO DE LAVAPIÉS”** Francisco Asenjo Barbieri-rena.
(Arriaga Antzokiaren ekoizpena Calderón Antzokiaren koproduzioarekin).

Arriaga Antzokia

2010ko urtarrilak 27, 28 eta 30, 20:00. 2010ko urtarrilak 31, 19:00.

Musika zuzendaritza: **Jorge Rubio**

Eszena zuzendaritza: **Gustavo Tambascio**

2. **BOSeko ARATUZTE KONTZERTUA**

Euskalduna Jauregia

2010ko otsailak 11, 20:00.

Programa:

G. Gerswin: **Kubatar Obertura**

G. Gerswin/C. Davies: **Porgy and Bess-i buruzko Fantasia**

L. Bernstein: **West Side Store-ko dantza sinfonikoak**

J. C. Pérez: **Marilyn**

L. Bernstein: **Preludio, fuga eta riffs**

G. Gerswin: **An American in Paris**

3. **ANTZERKIA “NEBBIA” CIRQUE ELOIZE**

Arriaga Antzokia

2010ko martxoak 18, 19 eta 20, 20:00. 2010ko martxoak 21, 19:00.

Zuzendari eta sortzailea: **Daniele Finzi Pasca**

4. **DANTZA LES BALLETS TROCKADERO DE MONTE CARLO**

Arriaga Antzokia

2010ko apirilak 16 eta 17, 20:00. 2010ko apirilak 18, 19:00.

Konpainiako zuzendaria: **Eugene McDougle**

Zuzendari artistikoa: **Tory Dobrin**

Balet maisua: **Paul Ghiselin**

5. **BOSeko KONTZERTU SINFONIKOA**

Euskalduna Jauregia

2010ko maiatzak 6, 20:00.

Programa:

L. van Beethoven: **Piano eta orkestrako 5. zk.ko kontzertua “Emperador”.**

D. Shostakovich: **26 zk.ko Sinfonia.**

6. **BOSeko KLAUSURAKO KONTZERTUA**

Euskalduna Jauregia

2010ko ekainak 17, 20:00.

Programa:

J Guridi: **En un barco fenicio**

M. de Falla: **El amor brujo, Suite**

S. Prokofiev: **Alexander Nevsky**

Salmentako ordutegiak eta tokiak

Baterako abonua 2009ko **abenduaren 14tik 2010ko urtarrilaren 15ra bitarte** erosi ahal izango dira Arriaga Antzokiko leihatiletan eta Euskalduna Jauregian, BOSen bulegoan soilik. Arriaga Antzokiko leihatilak egunero daude zabalik (astelehenetik igandera), 11:30etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Asteazken, ostegun eta ostiraletan, leihatilak 20:30ak arte egoten dira zabalik. BOSek Euskalduna Jauregian duen bulegoa, berriz, astelehenetik ostiralera egoten da zabalik, 9:00etatik 14:00etara.

Ekimen honek BOSek eta Arriaga Antzokiak artearen eta kulturaren arloan duten lankidetzaz sendotzen du, **bi erakundeen arteko hirugarren hitzarmen** honi esker.

Informazio gehiagorako:

Cristina Angulo

Telefonoa: **663 07 44 32**

comunicacion@teatroarriaga.com

www.teatroarriaga.com

Luis Javier Perez

Telefonoa: **635 75 81 47**

comunicacion@bilbaorquestra.com

www.bilbaorquestra.com